




Unai
Mendizabal
Jauregi



BALDARRAK



Doinua:

*Guretzat berdin dira
Kopla edo lauko txikia*

Herrian edo eskolan gertatzen diren xeblebrekeriek ematen dute nahiko gai bertsoak jartzeko!

Gure herrian bada
baldarra **ugari**
berriz deitu diogu
anbulantziari.

Posatzen ari zela
etxean **fregona**
irristan hankaz gora
joan da **amona**.

Jon traktoretik behera
jausi da, **begira**
ximaur pila gainera
buruz **erori da**.

Loreak ureztatzen
ari zen **izeba**
ta nahi gabe erori da
balkoitik **behera**.

Postariak eskerrak
zeraman **kaskoa**
farola bat jo eta
hautsi du **motoa**.

Anek sudurra hautsi
du pareta **jota**
lokarriak lotzea
ahaztu **zaio ta**.

Leireri kuleroak
ikusten **zaizkio**
txakurrak ipurdian
koxk egin **baitio**.

Udaltzaina zuzentzen
kotxe **trafikoa**
putz egin ta irentsi
du **txilibittoa**.

Anbulantzia ere
dabil hola **hola**
aldapan behetik gora
jo baitu **arbola**.

Nahiz herriko mozkorrak
duen fama **txarra**
bera da minik hartu
ez duen **bakarra**.